

E Elkarrizketa

ELI MANTEROLA > Hitz ez elkarteko kidea



ONITZALETE

«Estresa ere ailegatu da baserrietara, kalera bezala»

Ekonomia >> Gaur ospatzen den Landa Eremuko Emakumearen V. Nazioarteko Egunaren harira, gaiaren inguruko adituek jardunaldia egingo dute Azkoitiko Baztertxon

IRENE ELORZA

Landa Eremuko Emakumeen bazterdeko partaidea eta Hitz ez Baserriko Emakumeen Elkarteak sortzaileetakoa da Eli Menterola (Zarauz, 1959). Gaur Azkoitiko Baztertxo antzokian egingo den Landa Eremuko Emakumeen V. Nazioarteko Eguneko jardunaldi hasiera emango dioten ekitaldian hartuko du parte.

Zertarako balio dute horrelako nazioarteko egunak?

Batez ere gure lana aintzakotzat hartzeko dira horrelako egunak, jendeak existitzen garela jakiteko. Berez, Emakume Nazioarteko Eguna bezalako da hau. Emakumeok urte guztian egiten dugu lan eta baserriarra ere urte guztian egoten da hor. Nolabait lan hori

aintzakotzat hartzea da egunaren helburu nagusia.

Ospakizumarako ala aldarrikapenerako eguna da zuretzat?

Ospakizuma, gehienbat. Besteak zer lan egiten ari diren ikusteko eta elkarrekin eguna pasatzeko balio du. Beste leku batzuetako jendea ezagutzeko aukera izaten da. Arrebako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ere Herrialde Katalanetatik etorritako talde bat ere.

Sarritan elkartzen al zarete zuen egoeraz hausnartzeko?

Hitz ez elkartetik jardunaldia antolatatu dugu aurren, Donostian. Bestalde, hilean behin elkartzen gara erakundeetako ordezkariekin, eta horrik gaurkoa bezalako jardunaldiak antolatzen ditugu, urtero, gai zehatzak aztertzeko. Aurren, landa eremuko emakumeen funtzeko zereginari buruz hausnartuko dugu. Izan ere, emakumerik gabe baserriak ez dauka etorkizunik, argi dago.

Hitz ez elkartearen sortzaileetakoa zara, zein helburu dituzue?

2007ko otsalean sortu genuen elkartea, gizaratean ikusezina zen gai

bat argitara ateratzeko: emakumearen osasuna, hain zuzen ere, bai-na exze barruko gorabehereak lotua. Izan ere, alde batetik, lanarekin lotutako osasuna legeok eta bestetik, familiarekin lotutakoa, afektiboa. Emakume askok bere gorabeherak bakarrik bizi dituzte, ustez nor-maldek direla pentsatuz. Guk esparru propioak antolatatu ditugu, for-tiarekin, ahal den neurrian eta beste kume baserrietarako ikusita, emakume baserrietarako bizi dituzten egoera horiek arintzen saiatzen gara. Zer bait ikasiz, bide batez, Osasuna hobetu nahian bizi kalitate hobetzea da gure asmoa. Horretarako, osasun arloko profesionalekin aritzen gara.

Baserriko emakumearen egoera zertan aldatu da azken urteetan?

Gauza asko mekanizatuak daude, gorpuzarekin ez da hainbeste lan egin behar. Bestalde, kaleko aurre-irapenak daude, ordenagailuak, ikastaroak eta abar. Baina estresa ere ailegatu da baserriara, kalean daigoen bezala, gauza gehiagotara ailegatu behar baita orain.

Azkoitia >> Euskaraz idatzitako ipuinik onenak 500 euro eskuratuko ditu sanandresetan egingo den sari banaketan ekitaldian

I. ELORZA

Lumak zorrozko ordurairitsizate 27. Bizenta Mogel Ipuin Lehiaketan parte hartu nahi dutenei. Azkoitiko Udalak antolatutako sari-keran, 18 urteko gorakoek aurkeztu dituzkete lanak. Euskaraz idatzitako ipuinak, gutxienez lau eta gehienez hamar orrikoak, orriaren alde batek bakarrik eta

Laburrak

1954ko eta 1968ko kintooek euren festa ospatuko dute

AZKOITIA >> 1954an jaiotakoek datoren larunbatean egingo dute kinto alaria, Iturri jatebelean, 19:30ean, meza egingo dute parrokian, eta ondoren, 21:00etan, atariarekin hasiko dira. Gaur, da izena emateko azken eguna, Iturri, baiendo eta Olaberri tabernetan. 1968. urtean jaiotakoek urriaren 25ean ospatuko dute kintooen festa. Joseba jatebelean elkartuko dira, 21:00etan, lagunarteko afaria egingo dute. Parte hartu nahi dutenek 50 euroko diru sarerra egin behariko dute Euskadiko Kutzako (Caja Laboral) honako kontuan: 031.1.08549.1.

Gastronomia lehiaketak egingo dute erretiratuek

AZKOMA >> Plaza Ondo Jubilatuen Elkarteak antolatuta, bakailaia elkarriero erara prestatzeko lehiaketa egingo dute, gaur, 11:00etatik aurrera. Gaurko irabazleek eskualde mailan egingo den lehiaketan parte hartzeko aukera izango dute. Errezeta egiteko kazolak eta osagaiak Plaza Ondo elkarteak jarriko ditu.

parte bikotzez idatzita aurkeztu beharko dira. Lanak originalak eta inon argitaratu edota saritu gabekoak izan beharko dute.

Azkoitiko Udaleria (Herriko enparantza, z/g) bidali behar dira ipuinak urriaren 31 baino lehen. Gaitzizenezaren izenpetu behar dira eta, idazlanarekin batera, gaitzizenezaren datu pertsonalak zehaztu behar dira.

Epaimek hainak azararen 29an jakinaraziko ditu saridunen izenak. Lehen saria, 500 euro eta orotz gauria izango da; bigarrena, 330 euro eta orotz gauria; eta hirugarrena, 200 euro eta orotz gauria.

Merhi eta Costa Renault 2000 Formulako txapelketako buruan jarri dira

AZKOITIA >> Epsilon Euskadiko pilotuek Bartzelonan dute hurrengo hitzordua, Europako eta WEC txapelketetan

I. ELORZA

Akats tekniko batek Magny Cours-eko (Frantzia) podiuma zapaltzen utzi ez bazeto ere, Epsilon Euskadiko Roberto Merhi West European Cup (WEC) txapelketako buruan jarri zen joan den asteburuan. Gainera, bere taldekide Albert Costa bigarren sailweig pilotua, bertiz, 12. postuan sailkatu zen lasterketan, eta Richard Campolok motorearen hautsi zuten.

Bartzelonan lehian

Europako eta WEC txapelketak bertorio jokoa izango dira datorren asteburuan, Bartzelonan (Herrialde Katalanak), Merhi eta Ricciardoprotagonista dituela.

JARDUNALDIAREN EGITARAUA

- **09:45-10:15.** Harrera egin eta dokumentazioa banatuko dute.
- **10:15-10:30.** Jardunaldiaren hasiera.
- **10:30-11:00.** Landa eremuko emakumea EA/Eko araudi emango du.
- **11:00-11:30.** Emakumeak euskal eta plangintzetan hitzaldia emango du Jorge Garbisuk.
- **11:30-12:00.** Emakumeak euskal eta plangintzetan hitzaldia emango du Olga Aranegek eta Eider Arrietak.
- **11:30-12:00** Atsedenaaldia.

hilibemiak
urteurrenak
eskertzak

Urola Kostako HITZAN jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
urolakosta@urola-kostakohitza.info / Tel.: 943-89 00 17